

>justizia



2012KO APARTEKO LANSARIA. ERREKLAMAZIOAK

Aurreko informazio orrian iragarri bezala, azkenik gertatu behar zuena gertatu da: 2012n kendutako aparteko lansaria ordaintzera Eusko Jaurlaritza zigortzen duen epaia atera da. Hori, berez, berri ona bada ere baditu alde ezkorrak, hona hemen:

Lehena. Epaiak eragina izan dezakeen esparrua Bizkaia baino ez da. Eta horrela da egoera pertsonal arloko kontuak daramatzen epaitegian - Administrazioarekiko Auzietako 6 zk.ko epaitegian hain zuzen- epailea sinestuta dago atzeraeragin kontuetan arrazoia dugula; “kanosoen” aldeko sententziek frogatzen duten bezala.

Bigarrena. Epaiak aparteko lansaria itzultzeko agintzen du, abenduaren 30 eta 31 egunei dagokiena izan ezik. Horren arrazoia da BJLOaren aldaketa -besteak beste, Justizia Administrazioari langileen aparteko ordainsaria dela-eta- abenduaren 29an argitaratu zutela.

Hirugarrena. Gasteizko epaile batek erabaki zuen, sakoneko mamian sartu barik, Auzitegi Konstituzionalaren esku uztea ordainsaria ordaintzea legezkoa den ala ez.

Horrek guztiak egoera onartezinera garamatza: EAEko Justizia Administrazioari langileen parte batek kobratzeko aukera izango du eta besteak, aldiz, % 25 baino ez du jasoko.

Laugarrena. Eusko Jaurlaritzak Auzitegi Konstituzionalera jo zuen eskumengataska zela-eta. Egoera lehenbailehen erregularizatzea nahi zuela esan arren, Auzitegi Konstituzionalak zer esango zain geratzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Zer gertatuko da Auzitegi Konstituzionala Madrileko Gobernuaren alde eta aparteko ordainsaria kentzea berrestearen alde agertuko bada? Nola jokatuko luke Eusko Jaurlaritzak orduan? Bere garaian esan zuen bezala, asmoa bazen funtzionario guztiei ordaintzea, egin beharko lukeena da diru-aurrerapenak baztertu eta 2012ko ordainsaria itzultzea. Bada, horrelaxe egiteko erreklamatu dio LABek HASIERA-HASIERATIK.

70.000 bat langile gara euskal sektore publikoan egoera erregularizatzeko zain gaudenak. Ez dugu nahi nomina aurreratzea, gure dirua, gure aparteko lansaria

nahi dugu. LAB borrokatuko da Eusko Jaurlaritzak, emandako hitza betetzen duela, langile guztiei ordain diezaien. Ezin ditugu onartu bidegabekeria hauek, batzuek kobratuta eta beste batzuek kobratu gabe utzita.

Horiek horrela, egokierak gomendatzen du Bizkaian erroldatutako langile guztiek erreklamazioa egin dezatela. Nahi duen edonoren esku jartzen ditu LABek ERREKLAMAZIO IDATZIA ETA GORAKO HELEGITEA EGITEKOA, AFILIATUA IZAN ALA EZ.

Horrela diseinatu dugu:

- Erreklamazioa. Idazki bakarra, bertan nahi duen orok sinatuko zuen.
- Gorako errekurtsioa. Idazki bakarra, nahi duen orok sinatuko zuen.
- Administrazioarekiko auzi eskaera. 10 pertsonetako taldeek eskaera aurkeztuko dute. Horrela, auzia ez dute Gasteizera bideratuko.

Bateon batek nahiago badu pertsonalki eskaera egin, bi idazki eredu prestatu ditugu:

Dena dela, mugitu behar gara. Gure lan eskubideak ezin dira zintzilik egon epaitegi baten erabakiaren sokatik. Arriskutsuegia da. Gure berme bakarra Eusko Jaurlaritzarekin negoziazio kolektibotik dator. Eta oroitarazi behar diogu Eusko Jaurlaritzari ordaintzeko borondatea bazuela onartu zigula.

Baina, denok ondo dakigun bezala, negoziazioa apenas ez da existitzen. Hori dela eta, langileok behartu beharko diogu ordain dezala IA.

2015-02-16